

Hemen Turismo Zerbitzuak bidali duen gutuna.

Kaixo,

Bergara Versailles modukoa. Hitz potoloak dira horiek. Garai batean erabiltzen zirenak. Gaur halakorik esateko motiborik ba al dugu? Lehengo erantzuna ezezkoa da. Horrelako konparaketa egitea tokiz kanpokoa da. Eta hala izango da.

Hala eta guztiz ere, Bergara hiriko gune berdeek harritzen dute kanpotik Bergarara etortzen dena.

Izan ere, itxura industrialak eta hiriaren hazkundeak ez dute guztiz ezkutatu Bergarako lorategi historikoak. Alderantziz, gune berde hauek oso nabariak egiten dira, hauek ere eraldatuak badaude ere.

Lorategi pribatuak ez ezik, zuhaitziak eta parkeak Bergarako hiriaren nahita nahizko osagaiak izan ziren. Bizi kalitatea hobetzeko, aisialdirako, sozializatzeko, apaintzeko... Honekin batera, Bergarako Gerriko Berdea (SL GI 38). Trikuharrien bidea (PR GI 94) zein auzoetako ibilbideak ditugu. Bai eta hirian gure lorazainek prestatzen dituzten txokoak ere.

Behar bada Versailles modukoa ez da izango gure Bergara. Berdea bai, ordea.

Errekaldoko lorategia dugu bikainetakoa. Historia luzekoa, XIX. mendearen erdialdeko proiektua dugu egun gozatzen dugun lorategia. Zonalde batzuetan baso kutsua duena.

Errotaldekoa zein **Untzetakoa** ere ez dira makalak, tamainaz zein espazioen banaketari begira.

Zer esanik ez **Mariaren lagundiakoa** ere.

Irizar Etxekoa txikia izanagatik oso berezia, XVII. mendean baratza lorategi bihurtzea hiri eremuan eragiteko borondate argia azaltzen duelako.

Olaso etxekoa ere XIX. mendeko bitxikeri ugari ditu; besteak beste, magnolia. **Moiua-Barrena** zein **Laureagakoak** harresiaren beste aldean geratzen dira, **Monjazaharren** komentuaeren baratza ikusgarria bezala. Laureagatik zatitu ondoren, **Usondoko** parkea sortu zen. Irizar eta Usondo **lizarretako** pasealekuren bidez lotzen ziren, itzalpean. **Bidebarrian Deba ondoko zuhaitziak** horren ondorengoak dira. Garai berekoa dugu **espoloia**, hura ere zuhaitz peko paseoa, aisiarako egokitua eta **Untzagako** berdea kanpoko aldera luzatzen zuena.

Mintegiaren lorategiaren azken aztarnak ditugu, eta garai bateko itxura Munibe plazako panel informatiboan jaso...

Ondare bikaina eta bakarra dugu Bergaran. Honekin disfrutatzeko bisita gidatuak antolatuko ditugu. Lehena, hilaren 20an, larunbatean euskaraz. Europako ondare jardunaldiekin batera. Errekaldetik aterako gara, goizeko 12etan. Olaso eta Mintegitik Unzeta eta Espoloirantz joango gara. Buelta, bidegorritik; Laureaga eta Usondora. Handik, Errotaldera, lizarreta eta Irizareneatik pasatuz. Igandean bisita bera, ordu berean, erdaraz. Ondoren, turismo bulegoaren eskaintzan finkatuko dugu.

Gainera, android-erako sortutako app baten bidez, nork bere kabuz egin dezake bisita. App honetan lorategiak Bergarako beste ibilbide batzuekin gurutzatuko dira. CIC tourgune ikerketarako elkargoak eta Kultour enpresak sortu duten app-a da. Play store-n dago eskuragai, debalde da.